


**A**TZO, SANTA KLARA. BERE AZKEN LIBURUA AURKEZTEKO NEKEZ AURKI ZEZAKEEN «TXILLARDEGI»K EGUN APROPOSAGORIK. LIBURU HORI «SANTA KLARA, CURE UHARTE EZEZAGUNA» BAITA. DONOSTIAKO IRLARI BURUZ INOIZ IDATZITAKO LEHEN MONOGRAFIKO HORI EZUSTE EDERREZ BETETA DACO.

## «Donostiako paradisuari Santa Klara uhartea deritzo»

**Elkarrizketa** | Jose Luis Alvarez Enparantza, «Txillardegia»



JOS. URBEL / ARAKAL PRESS

*«Han badago aztarnarik, eta historian zehar lazareto, desterru leku eta gotorleku ere izan dela kontuan izanik, induskatzea mereziko luke»*

Bada Santa Klara inoiz zapaldu ez duen donostiarririk. Donostiar horrentzat, uhartea zeharo ezezaguna da, jakina. Baina irla ongi ezagutzen duela uste duen donostiarrak ere sorpresa ederak aurkituko ditu Jose Luis Alvarez «Txillardegia»k atzo aurkeztu zuen liburuan. Izan ere, idazle antigutarrak ez du izenburua alferrik aukeratu.

«Antigua 1900» gogoangarrian egin zuen antzera, Txillardegik mapa, grabatu eta argazkien bidez harilkatu ditu uhartearen inguruko bere oroitzen, gogoeta eta are aurkituntzak ere. Hain justu, aurkituntzetan, eta batez ere ermita zaharren aztarnen aurkituntzetan, datza liburuaren ustekaberik handienetako bat, egilearen beraren iritzi. «Ermita hura -esan du- XIV. mendekoa zen, beraz, Donostiako batimendu zaharrenetarikoa. Alabaina, 1813an, Wellingtonen aginduz, zeharo suntsitu zuten, ia Donostia osoa bezala. Geroztik, autore guztiek errepikatu dute batimendu haren aztarnarik ere ez zela geratu. Nik, berriz, plano zaharrak gainjarritz, ermitaren kokapen zehatza zein izan zen jakin ahal izan dut eta, horri esker, hainbat aztarna identifikatu». Horien artean eskailera txiki batzuk daude. «Beti bueltak ibili naiz, ea zertarako ote ziren itxuraz behintzat inora eramaten ez zuten eskailera horiek. Eta hara!». Baina aurkitu dituen aztarnak ez dira herrixkoak bakarrik. Ermita zegoen eremuan hazten diren makalak ere garaiak omen dira edo, behintzat, garaioen ondorengo zuzenak.

Uhartearen ez da inoiz indusketa arkeologikorik egin, eta egin beharko lirakeela uste du Txillardegik. «Arkeologo lagun bati esan diot: nik liburuaren lehenengo parte idatzi dut, baina bigarrena zuek, arkeologoek, idatzi behar duzue. Han badira harlauzak eta beste arrasto batzuk, eta uhartea historian zehar lazareto, desterru leku eta gotorleku ere izan dela kontuan izanik... induskatzea mereziko lukeela uste dut».

Arkeologiatik harago doaz, alabaina, Txillardegik liburuaren aipatu dituen gaiak. Horra hor, adibidez, Frantzisko Asiskoa

Donostian egon zen tradizioa. «Uhartera joan, han hotzez gaitxo eta bolada bat pasatu behar izan omen zuen Antiguako komentuan. Tradizioa baino ez da, hots, ez dago dokumentatuta, baina, eskuratu ahal izan dudana hainbat libururi esker, oso ondo oinarritutako tradizioa dela ondorioztatzen dut. Litekeena da hemen egon izana».

Liburuaren atal oso bat uharteko iturriari dagokio, historikoki oso garrantzitsua izan delako. «Donostiak pairatu dituen setiaketa guztietan leku estrategikoa izan da uhartea. Beraz, hura gotortu eta soldaduen bizileku bihurtzen zen. Horretara

ko ezinbestekoa zen ura, eta iturri horrek etengabeke jarria zuten, eta egun ere badu».

Uhartea untziz beteta egon zeneko istorioa ere bolo-bolo dabil donostiarron artean. Txillardegik dokumentatu egin du. «XIX. mendeko handiki batzuek Ehibitarien Txabola eraiki zuten han, zerbaite botatzen zuten seinale. XX. mendean, berriz, Jose Manuel Andoinek eta are bere amak ere farolako leinuetatik beretik untxiak botatzen omen zituzten. Uharteko untxikia jan duenik ezagutzen dut nik», nabarmendu du.

Jose Manuel Andoin aipatu du, uharteko azken torrero edo

farozaina. Oso gaizki bukatu zuten. Benetan bizitza latza uharteko torreroena, egileak egiaztatu duenaren arabera.

Toponimia Txillardegik asko estimatzen duen lan esparrua da, eta uharteari buruzko liburuaren ere nabari da. Arribizketa da, egun zeharo galduta dagoen arren, berebiziko protagonismoa duen toponimo bat. «Ondarreta eta uharte bitartean dauden arroak dira Arribizketa. XIX. mendean Ondarreta eta uhartea Arribizketatik barrena barradera edo pasealeku baten bidez lotzeko saioak hasi ziren. Kantsulatuak obrak hasi baina, dirurik ezean, 1821ean bertan

behera utzi behar izan zituen. Garai hartakoa da egun Arribizketan ikus daitekeen bukatu gabeko barradera. Ondoren ugaritu egin ziren saioak. Nire aitona, Antiguako zinegotzia, horren alde ere aritu zen. Esker-erak ez zuten egin, bestela, akabo uhartearen uharteauna!».

Hura ez zen uhartearen gauza gabe geratu zen proiektu bakarra izan. Torres Quevedo ingeniari ospetsuak ere Gaztelua eta Santa Klara lotzeko teleferiko bat diseinatu zuen. Txillardegik ederi ezagutzen ditu hori eta beste proiektu batzuk. Ez ditu liburuaren aipatu, ordea. «Nahi nuen dagoen uhartearen eta egon den uhartearen berri eman, ez egon litekeenaren berri. Dena dela, uharteari buruz argitaratzen den lehen liburu monografikoa hau bada ere, gaia ez du inolaz ere agortzen, uharteari alde askotatik hel da-kiokelako».

Santa Klara... isla, irla, uhartea? «Isla edo irla hitz jator eta ongi dokumentatuak dira. Baina uharteak ere tradizio zaharra du. Azkuek berak onartu zuten, eta, gainera, de facto asko erabili da, batez ere autore modernoentzat. Erreakzio puristaren ondorio izan daitekeela? Bai, baina erreakzio hori mugimendu nazional guztietan gertatu da, le droit de nommer deriztaren ildotik. Horren alde egin dut apustu».

Nondik datorkio, baina, Txillardegiri uhartearen inguruan ikertzea eta liburu idaztea ere eraman duen zaletasuna? «Ni antigutarra naiz, eta txikitxikitik izan naiz uhartearen fanatikoa. Hamabi urte nituela joan nintzen lehenengo aldiz, osabaren piraguan. Ondoren, kokkorrago nintzela, lagunekin joaten ginen igeri egiten. Geroztik ehunka aldiz izan naiz. Ez dut uste hango *dolce far niente* giro hartan baino ordu atsegina, beste inon dastatu dudarik. Baina lan-leku ederra ere bada. Literatura orrialde mordska idatzia dut nik han. Are «Soziolinguistika Matematikoa»ren kapitulu batzuk ere. Donostiako paradisuari Santa Klara Uhartea deritzo».